

Erizain eta medikuak euskaraz. Trebakuntza taldean B2-C1

Nori zuzendua	Nafarroako osasun etxe eta kontsultategietako mediku eta erizainei.
Helburuak	<p>Orokorra: Laguntza eskaini gaixoak eta herritarrak orokorrean euskaraz artatzeko, bai ahozko komunikazioan, bai idatzizkoan.</p> <p>Zehatzak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Gaixoari bere gaitzaz eta tratamenduaz azalpenak eta instrukzioak ematea modu ulergarrian eta argian, aintzat hartuz, beti ere, gaixoarentzat ohikoagoak diren hizkuntz moldeak.• Jendaurrean, eskoletan, erretiratu taldeekin, zahar etxeetan eta abarretan hitzaldiak ematea osasun gaien inguruan, beti ere, kontuan hartuta zein diren entzuleek hobekien ulertuko dituzten hizkuntz moldeak.• Lan arloko hiztegia eta adierazpideak ezagutzea.• Idatzizko komunikazioan, jakinarazpenak, kanpainak, abisuak eta oharrak, kartelak, mezu elektronikoak e.a. euskaraz zuzen eta, batez ere, argi idaztea.
Edukiak	<ol style="list-style-type: none">1. Oinarrizko kontzeptuak: argitasuna, ulergarritasuna, soiltasuna, zehaztasuna, egokitasuna, zuzentasuna...2. Ahozko hizkeraren ezaugarriak: aldaera fonetikoak, sintaxiaren norabide aldaketa, parafraasiak, makulu-hitzak etab.3. Kontsultetan gaixoekin eta beren laguntzaileekin edo familikoekin ohikoagoak diren azalpenak eta instrukzioak (Baita idatziz ere: errezetetako instrukzioak).4. Laneko hiztegia eta esapideak noiz eta nola erabili, eta ulergarriak egiteko estrategiak.5. Jendaurreko hitzaldiak: koherentzia eta kohesioa.6. Abisuak, oharrak, kartelak, mezu elektronikoak eta bestelako idazkiak: kunplimentuak, orduak, datak, helbideak, fraseologia... <p>Ikastaroan ez da landuko terminologia eta hizkera molde profesionala, zeharka ez bada, behinik behin.</p>
Nola	<p>Azalpen teorikoak emanen badira ere, gehien bat praktikoa izanen da: Alde batetik ikasleek, irakaslearen laguntzaz, lanean suerta daitezkeen ahalik eta egoera gehienetan zer eta nola esan landuko dute (diagnostikoak, tratamenduak, instrukzioak...). Bestetik, lanean erabiltzen dituzten dokumentuak ekarriko dituzte, haien gaineko azalpenak nola eman lantzeko.</p> <ul style="list-style-type: none">• publikoari begira idazten dutena landuko da (orain arte gaztelera hutsean idazten zutena ere, euskaraz idazten ikasiko dugu).• gaixoei edo norbanakoari zuzendutako komunikazio idazkiak landuko dira (mezu elektronikoa, eskutitzak e.a.)
Formatua	Ahozkoa aurrez aurreko klasetan landuko da, 2 orduko saiotan Idatzizkoa on-line landuko da, moodle plataforma erabiliz.
Egutegia Ordutegia	Aurrez aurreko saioak: urtarrilak 16, 23 eta 30, otsailak 6,13, 20 eta 27 12:00etatik 14:00etara
Ziurtagiria	Bertaratze agiria, lanen %80a eginez gero
Tokia	Ahal dela, beren lantokitik hurbil.